

# ELKARRIZKETAREN TRANSKRIPZIOA

- Kaixo. Gaur Itziar Morari egingo dizkiot galdera batzuk, ea Zumaiako etorkizunaren inguruan zer gertatuko den. Prest zaude galderak erantzuteko?

- **Kaixo, Aritz. Bai, prest nago.**

- Bale. Biztanleriarekin hasiko gara, eta lehenengo galdera izango zen ea **langabeziaren portzentaia gazteetan handiagoa edo txikiagoa izango den.**

- Badirudi gero eta gazte gehiago egongo dela langabezian, ez dakitelako zer bide hartu, eta ez badute soluziorik aurkitzen, geroz eta gehiago handituko da.

- Bale. Eta bigarren galdera izango zen **etxeen edo pisuen kantitatea handiagoa ala antzekoa izango den hemendik 25 urtera?**

- Ba, honetan ere, munduan geroz eta jende gehiago baldin bagaude, etxeak geroz eta gehiago beharko ditugu. Etxe desberdinak nola egin pentsatzen hasi beharko dira. Orain artekoekin ez garelako kabitzen.

- Bale. Orain, jasangarritasunaren inguruan beste bi galdera egingo dizkizut. **Lehenengoa izango zen ea petrolioa agortuko den ala erabiltzen jarraituko dugun.**

- Nik uste dut ez bat eta ez beste. Nik uste dut petrolioa agortu baino lehenago beste energia mota batzuk erabiltzen ikasiko dugula, eta gutxitu egingo dela petrolioaren erabilpena.

-Bale. Eta bigarren galdera izango zen ea **gasolarik ez badago, nola mugituko garen. Zein baliabide natural nagusituko da?**

-Nik uste dut argindarrak irabaziko duela, kotxeak eta, elektrikoak izango direla gehienbat. Hemen haize asko egiten du, hori aprobetxatzen ikasiko bagenu, eta eguzkia ere bai. Gero eta eguzki gehiago egiten du hemen. Horiek biak nagusituko lirateke nire ustez.

-Bale, orain ekonomiaren inguruan beste bi galdera egingo dizkizut eta **lehenengoa izango zen: zumaian guztientzat nahikoa lan egongo da herrian?**

-Auskalo!Nahiago nuke! Nola ez dakigun industriarekin zer pasako den. Adibidez, Zumaian oso inportantea izan da beti, eta beste aldetik,zerbitzuek nik uste ondo jarraituko dutela, baina zerbitzuekin zer pasako den ez dakigu.

-Eta bigarren galdera izango zen: **dirulaguntzen beharra duten herritarren kopuruak gora egingo du, ala behera?**

-Zoritxarrez gora nik uste. Lana dagoen bezala jendeak soldatarekin dauzkan arazoekin eta bizitza garestitu denarekin, gero eta behar gehiago egongo da.

-Bale. Orain klima aldaketaren inguruan, zure ustez **zer egin beharko litzateke Zumaian klima aldaketaren aurrean?**

-Galdera interesgarria. Ba kotxeak gutxiago erabili, hori da nik gehien landuko nuena Zumaia ahal baduen.

-Barkatu interferentzia bat izan dugu eta berriro egingo dizut galdera Itziar

-Bale ba esan

**-Zer egin beharko litzateke Zumaian klima aldaketaren aurrean?**

-Galdera interesgarria. Lehenbizi kotxeak gutxiago erabiltzeko bideak jarriko nizkioke jendeari, eta bizikleta erabiltzeko aukera. Esate baterako, beste leku batzuetan jendeak erabiltzeko bizikleta elektrikoak. Edozeinek erabiltzeko moduan, txartel bat jarrita jendeak erabili dezan, horrelako gauzak. Gero, kontzientzia gehiago landuko nuke, bai birziklapena, bai erosketa egiten dugunean begiratzea produktuak nola datozen ontziratuta... Horrelako gauza pila bat egin daitezke. Uste dut

agintariek gehiago landu beharko luketela jendeak kontzientzia eduki dezan.

**-Bale eta bigarren galdera, klima aldaketaren erruz, zein izango da hondamendi kaltetuena Zumaian? Ur maila, suteak, tenperatura igoera...**

-Ba esaten dutenez, ur maila arazo handia izango litzateke Zumaian. Kontuan hartuta, esate baterako, etxeak uretatik oso gertu dazkagula eta lehen ere itsasoari eta ibaiari leku asko kendu diegula etxeak egiteko. Beste aldetik, tenperaturaren igoera arazo handia iruditzen zait, erabat aldatuko delako ekosistema horrela jarraitzen badugu. Esate baterako, euri oso gutxi egiten du, oso nabarmena da. Guk txikitan geneukan oroitzapena euria zenbat egiten zuen, eta orain zuek ikusten duzuenak ez dauka zerikusirik niretzako. Orduan bi horiek agian. Eta tenperatura igoerak suteak ere ekarri ditzake, baina nik uste Zumaian inportanteena ur-mailarena eta eta tenperatura igoerak ekosistema aldatuko lukeela.

**-Bale, azkenik jendartearen inguruan beste bi galdera egingo dizkizut, eta izango ziren ea 2050. urterako bermatuko al da berdintasuna?**

-Denon artean saiatzen bagara bai hori, kontua da berdintasuna egoteko arlo guztietan parte guztiek hartu behar dutela parte. Pakeak egin behar dituztela alde guztiek. Batek ezin dio inposatu hau. Orduan, denen artean egin beharreko lana izango da.

-Bale eta **bigarren galdera gobernu sistema berdina izango al da Zumaian? Demokratikoa, monarkikoa ala inperiala?** Berdin jarraituko dugula iruditzen zait edo antzeko. Kosta egiten zaigu normalean horrelako gauzak aldatzea. Zumaian antzeko jarraituko dugula iruditzen zait, ez bada beste maila batera aldatzen eta horrek guri eragiten badigu, printzipioz guk erabakita horrela jarraituko dugu.

-Bale, eskerrik asko. Hau izanda guztia eta eskerrik asko galderak erantzuteagatik.

-Plazer bat izan da.

-Agur.